



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OYONgo Udala

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### Bileraren akta

2023ko irailaren 13ko, asteazkeneko, bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

#### Ezohiko bilkura

**Data: 2023ko ekainaren 26a, astelehena.**

**Ordua: 09:00**

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Bilkura osatu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bertaratu da saiora, idazkari gisa.

Bilkuraren deialdia eta orduaren arrazoa Gorte Nagusietarako 2023ko uztailleko hauteskundeetarako hauteskunde-mahietako kideak izendatzeko zozketa egin beharra da. (Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 26.4. artikulua).

Ordainketen araubidea ezarri ez denez, saio honetara etortzeak ez du ordainketarik jasotzeko eskubiderik sortuko.

Saioa alkate-udalburuak deitu du, arauk ezarritako aurrerapenarekin eta publikitatea eginda, eta honako honen arabera:

#### Gai-zerrenda

1. Udaletxeko bilkuren aretoan zinegotziak jartzeko hurrenkera.
2. Alkatearen kargu-hartzea.
3. Gorte Nagusietarako 2023ko uztailleko hauteskundeetarako hauteskunde-mahietako kideak izendatzeko zozketa.

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira. Saioa grabatu egin da, 2023ko apirilaren 20ko saioan hartutako erabakia gauzatuz.

#### 1. Udaletxeko bilkuren aretoan zinegotziak jartzeko hurrenkera.

##### Aurrekariak

- 1) Araudia:
  - I. AFA, 89. artikulua.
- 2) Udalbatza osatzen duten kideak udaletxeko bilkuren aretoan beraien taldearekin eseriko dira. Taldeen hurrenkera udalburuak erabakiko du, bozeramaileei entzun ondoren, eta boto gehien lortu dituen zerrendako kideek izango dute lehentasuna. Edonola ere,

*Udalbatzaren 2023 – VI – 26eko bilkuraren akta*



udalbatza osatzen duten kideen hurrenkerak botoak ematea eta zenbatzea erraztuko du.

- 1) Hori dela eta, alkatetzak bozeramaileei beraien kokalekuarekiko lehentasunak adierazteko eskatu die. Hurrenkera alkatetzak aukeratu du eta honako hau da, zenbatuta mahaiaren ipar-muturretik hasita:
  1. Oscar Layana Rio (PSE-EE (PSOE))
  2. Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV)
  3. Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV)
  4. Jose Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV)
  5. Idazkari jauna
  6. Alkate jauna, Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu)
  7. Leire Martínez Flores (EH Bildu)
  8. Eva María Frías Del Val (EH Bildu)
  9. Leire Saenz Verano (EH Bildu)
  10. Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu)
  11. Rosa Vázquez Iglesias (PP)
  12. Eduardo Inclán Gil (PP)

Hurrenkera horren aldaketak aurrerapen nahikoarekin jakinarazi beharko dira bideozko aktaren sistemak zinegotziak identifikatu ahal izateko (mikrofonoaren esleipena).

## 2. Alkatearen kargu-hartzea.

### Aurrekariak

- I. Oyón-Oiongo Udalbatza eratzeke saioan, Jose Manuel Villanueva Gutiérrezek zinegotzi-kargua hartu zuen.
- II. Eta alkate izendatu zuten, partaideen legezko kopuruaren gehiengo osoa lortu ez bazuen ere, herri-boto gehien zituen zerrendaren buru zen zinegotzia baitzen.
- III. Alkate hautetsiak, egintzaren emozioa zela eta, hitzaldia hasi zuen eta zin edo promes egitea ahaztu zitzaion. Baina une horretatik aurrera alkate aritu zen, zerrendaburuei txandak emanez, eta, gainera, bilkura amaitu zuen.
- IV. Aplikagarria den legedia.
  - a) 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorrena, 108.8 artikulua.

"Karguaz jabetzeko unean eta kargudun izateko, hautagai hautetsiek Konstituzioari men egingo diotela zin egin edo hitzeman behar dute, bai eta dagozkien lege edo erregelamenduetan aurreikusitako gainerako betekizunak bete ere".
  - b) 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena, 18. artikulua.

"Bere eginkizunak egiten hasi aurretik, alkateak Udalbatzaren aurrean zin egin edo hitzeman beharko du kargua".
  - c) 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, toki-korporazioen antolakuntza, jarduera era araubide juridikoaren araudia onartzen duena, 40. artikuluko 2. eta 3. atalak.
  - d) Hauteskunde-batzorde zentralaren irizpidea (HBZren bilkura: 1995/06/22, Akordio-zk.: 813/1995, espediente-zk.: 350/14).
- V. Jasota dago idazkari kontu-hartzaileak sinatutako txostena; horren ondorioa eta ebazpen-proposamena transkribatzen dira:

*Udalbatzaren 2023 – VI – 26eko bilkuraren akta*



- a) Ondorioa: Zin-egiterik edo hitzemanik eza baliogabetzen ez duen irregulartasuna da, eta Udaltzaren Osoko Bilkurak egiten duen hurrengo bilkuran zuzendu daiteke, zin edo promes hori eginez.
- b) Ebazpen-proposamena: Ospatuko den hurrengo bilkuraren gai-zerrendan alkatearen kargu-hartzea gehitzea. Hurrengo bilkura ez da ekainaren 28 baino geroago ospatuko, izan ere, Gorte Nagusietarako 2023ko uztaileko hauteskundeetarako hauteskunde-mahietako kideak izendatzeko zozketa egiteko saioa egingo da. (Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 26.4 artikulua). Alkate hautetsiak kargua hartzen duela adierazi beharko du eta Konstituzioari men egin.

Jose Manuel Villanueva Gutiérrezek karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Oiongo alkate-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herria-ren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti».» Eta gaztelaniaz: «Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria».

### **3. Gorte Nagusietarako 2023ko uztaileko hauteskundeetarako hauteskunde-mahietako kideak izendatzeko zozketa.**

EINek emandako tresna erabiliz Gorte Nagusietarako 2023ko uztaileko hauteskundeetarako hauteskunde-mahietako kideak izendatzeko zozketa egin da. Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburuak amaitutzat eman du bilkura 9:11n (saioa CCXXXI urteko, Bihilisaren zazpigarrenaren, lehenengo hamarkadaren zazpigarren eguneko 09:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2023ko uztailaren 7an.  
Udaleko idazkaria:

Alkatetzak O. E.: